

UDAL BANDOA: SAN JOAN BEZPERAKO SUAK DEBEKATZEA ITSASONDON

Itsasondoko Udalak herritar guztiei jakinarazten die:

Euskalmeten iragarpenen arabera, hurrengo egunetan tenperatura oso altuak espero dira, eta **Alarma Gorria** ezarri da muturreko tenperatura altuengatik ekainaren 23 eta 24rako.

Gainera, **Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak** erakunde eskudunei gomendatu die egoera aztertzea eta, hala badagokio, San Joan suak ez piztea baso-masetatik hurbil dauden eremuetan.

Gomendio horiei jarraituz, eta egoerak prebentzio-neurri bereziak hartzea eskatzen duenez, herritarren segurtasuna bermatzeko eta sute-arriskua prebenitzeko helburuarekin, Itsasondoko Udalak honako erabakia hartu du:

DEBEKATUTA GERATZEN DA SAN JOAN BEZPERAKO SUAK EGITEA ITSASONDOKO UDALERRI OSOAN

Debeku hau udalerriko eremu guztietan aplikatuko da, bai espazio publikoetan bai pribatuetan: kaleetan, plazetan, landa-eremuetan, baserri inguruetan, lorategietan eta bestelako gunere irekietan.

Salbuespen bakarra:

Udalak berak modu ofizialean antolatutako eta kontrolatutako sua baino ezingo da piztu.

Ekitaldi honek segurtasun neurri guztiak beteko ditu.

Erabakia ulertuko duzuelakoan, eskerrik asko.

ZENTZUZ ETA ARDURAZ JOKA DEZAGUN!

Itsasondon, 2026ko ekainaren 23an.

ALKATEA
Itsasondoko Udala

Nagusia 24, 20249 Itsasondo / 943 881 170 / www.itsasondo.eus



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Suaren debekua

CSV/EKS:

SINA3a4c811c-a26c-4820-b716-992d477028dd